



Hezkuntza, guztion eskura

Bazkari solidario baten bitartez, Lasarte-Oriako herritarrek Togoko hezkuntza proiektu bati babesa emango diote / 8-9

C. ALBA

Elkartasun kilometroak

Tomax Arrutik 11 urteren ondoren Bartzelonako maratonia osatu du bigarren aldiz / 10

Bozetarako zerrenda aurkeztu du PSE-EEK: egungo zinegotziek osatuko dute taldea, aldaketa batzurekin / 2

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Ibon Fernandez Iradi askatzeko eskatu diote Frantziari / 3

MULTIOPTICAS EN
BIKOITZA GOZATU

ZURE 2. LENTE PROGRESIBOAK
BARNE

Gure betaurrekoak
2019 bildumakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   

Aldaketa gutxi, baina nabarmenak

Bi independente batu ditu PSE-EEK zerrendako postu garrantzitsuetara: David Mateos eta Nagore Duran. Egungo zinegotziek osatuko dute Jesus Zaballos alkategaia babestuko duen taldearen bizkarrezurra. Zerrenda parekidea osatu dute sozialistek

Adrian Garcia

Lasarte-Oriako PSE-EEK ofizialki hasi du lasterketa maiatzaren 26ko udal hauteskunderi begira. Joan den ostegunean hamazazpi lagunek osatutako zerrenda aurkeztu zuen Jesus Zaballosek. Jakina zen egungo alkateak karguari eusteko hautagaitza aurkeztuko zuela; nortzuek babestuko duten zegoen airean. Mercero gunean egindako ekitaldiak ikusmina piztu zuen, azkar bete baitzen gela txikia. Aldaketa gutxi batzuk, baina esanguratsuak egin dituzte sozialistek. Egungo udal taldeak jarraituko du bizkarrezurra osatzen, nahiz eta independente bakan batzuk fitxatu dituzten indartzeko. Zortzi emakumek eta beste horrenbeste gizonak osatzen dute zerrenda.

David Mateos da horietako bat. Bosgarren postuan zerrendan, Zerbitzu Publikoen arduraduna izango da, hautatua izanez gero. Berrikuntza nabarmena da: independentea, euskalduna eta gaztea. Obra publikoan ingeniari teknikoa da, eta herriko hainbat ekintzatan parte hartzen du; Texas kirol elkartean eta San Silvestrean.

Beste aurpegi berria Nagore Duran da. Independentea hura ere, Sasoeta-Zumaburuko gurasoen elkarteko kide da. Haur-hezitzailea da, eta Parte Hartze zinegotziaren ardura hartuko luke hautatua izango balitz. Baita herriko hiru ikastetxeen batzarreko udal ordezkari izango da.

Zerrendako gainerako toki esanguratsuak alkatearen konfiantzazko pertsonak osatzen dute, legealdi honetan zinegotzi bezala jardundakoak. Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzu eta arduradun eta alkateordeak bigarren tokia hartuko du; Agustin Valdivia arkitektoak Hirigintzako hautagaitzari helduko dio berriro ere, eta Maite Iglesias Kulturaren lan egiten jarraitzeko lehiatuko da. Nuria



Zerrendakideak, aurkezpenean, Mercero aretoan. TXINTXARRI

IÑIGO ZABALETA, BEDERATZIGARREN POSTUAN, EUSKARA BATZORDEKO HAUTAGAIA DA

Fernandez abokatua eta Sozioekonomiako zinegotzia seigarrena izango da, eta Txus Alonso Kirol eta Jailetakoa, zazpigarrena.

Beste aldaketak

Edonola ere, egun zazpi zinegotzi ditu PSE-EEK. Alegia, bi zerrendakide berriak atera ahal izateko 2015eko emaitzak hobetu beharko lituzke. Udalerria 1986an eratu zenetik beti irabazi ditu bozak PSE-EEK. Hauteskunde arrakastatsuenak 2003koak izan zituen, hamar zinegotzi atera zituenean. Ezker abertzalea legez kanporatu zuten urtea izan zen.

Zerrendaren herena berritu du denera PSE-EEK, baina gainerako aurpegi berriak bigarren zatian daude: Iñigo Zabaleta, Lourdes Palacios eta Eli Corbacho. Zabaleta da Euskara Batzorderako hautagaia, bederatzigarren postuan.

Zerrendako kideak

- Jesus Zaballos
- Lourdes Acevedo
- Agustin Valdivia
- Maite Iglesias
- David Mateos
- Nuria Fernandez
- Txus Alonso
- Nagore Duran
- Iñigo Zabaleta
- Lourdes Palacios
- Fernando Cruz
- Beatriz Juez
- Manuel Carballes
- Eli Corbacho
- Jose Garcia Avila
- Iñaki Mugica
- Tomasi Pelaz

Tomasi Pelazek itxiko du zerrenda, Froilan Elesperen alargunak. Omenalditxo errepikatuko dute horrela ETAK orain 18 urte hildako zinegotziari. Zaballos: "Dena eman zuen Lasarte-Oriatik eta sozialistengatik [Froilan Elespek]. Izan ere, bizitza eman zuen".



Iaz hasi ziren pentsiodunak Okendon elkartzen. TXINTXARRI

Pentsiodunek udal ordezkariak gonbidatu dituzte eztabaidara

Astelehenean prentsa agerraldi ireki bat egingo dute zinegotziekin, pentsioei buruz erantzun dezaten

Txintxarri

Hauteskunderak gerturatzeko nahi du direla aprobetxatu nahi du Lasarte-Oriako Pentsiodunen Koordinakundeak. Badaki haietako askoren bizi baldintzak hurrengo bozetan jokatu direla, eta indarra egin nahi dute. Izan ere, apirilaren 28an Espainiako hauteskunde orokorrak egingo dituzte, eta, maiatzaren 26an, udal eta foru hauteskunderak. Horrexegatik, hurrengo astelehenean ohiko elkarretaratzearen ordez, bestelako ekimen bat proposatu dute. Prentsa agerraldi irekia egingo dute Okendo plazan, 11:30ean, eta udal ordezkariak gonbidatu dituzte bertara. Euskal Herriko beste lekuetan ere antzeko ekitaldiak egingo dituzte. "Jasangaitza da erretiratu askoren egoera",

azaldu du koordinakundeak ohar batean.

Pentsioen sistemaren inguruko galderak prestatu dituzte koordinakundeak. Udal ordezkariak ez dute gai horri buruzko eskumenik, baina haien alderdien politikengatik erantzun beharko dute. Apirilaren 28ko hauteskunde orokorreari begira antolatuko dute eztabaida, baina udal ordezkariak ere azterketapean daude, hilabete geroago hautetsontzietan jokatu baitituzte haien karguak.

KPIaren eguneraketa, pentsioen sistema publikoa blindatzea, jasangarritasun faktorea, gutxiengo pentsio duina, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak... Gai horien inguruan erantzun beharko dute zinegotziekin.

Omenaldia Elesperi

Larunbatean, martxoaren 23an, Froilan Elesperi omenaldia egingo diote hilerrian, 12:00etan. ETAK tiroz hil zuen PSE-EEKo zinegotzia orain 18 urte. Hilerriko omenaldiaren ondoren, Froilan Elespe saria banatuko dute sozialisten egoitzan, Isla plazan. Orain zazpi urte hasi ziren sari horiek banatzen. Iaz Danok Kidek irabazi zuen.



TXINTXARRI



Fernandezen senideek Batzar Nagusietan prentsarekin hitz egin zuten. TXINTXARRI

Batzar Nagusiek eskatu dute Fernandez askatzeko

EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Podemosen aldeko botoekin, Frantziari eskatu diote Lasarte-Oriako preso askatzeko. Duela sei urte diagnostikatu zioten esklerosi anikoitza. Parisko auzitegiak epaiketa data ezartzeko esperoan dago herritarra

Txintxarri

Ibon Fernandez Iradi Lasarte-Oriako presoaren aldeko ebazpena onartu du Gipuzkoako Batzar Nagusietako Giza Eskubideen Batzordeak. Joan den ostiralean eman zuen ebazpena. EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Podemosek aldeko boza eman dute, eta horrenbestez, aho batez atera da adierazpena. PPko ordezkariarik ez da izan batzordean. Larri gaixo dago Fernandez Iradi. Haren osasun eskubidearen eta giza eskubideen aldeko aldarria egin du batzordeak, eta haren etxeratzea eskatu du, han bertan artatua izan dadin.

Esklerosi anizkoitza du lasarteoriatarrek. Duela zortzi urte hasi zitzaion gaixotasuna, espetxean zela. Orain sei urte egin zioten lehen diagnosis. Ordutik Frantziako espetxeetan izan da preso. Egun Lannemezanan dago, Parisko auzitegiak epaiketa data ezartzearen esperoan.

Ostiraleko Giza Eskubideen Batzordean Fernandez Iradiren ama eta emaztea izan ziren, Sareko kideekin batera. Bertan, euskal presoaren egoeraren larritasunaren berri eman diete gerturatutako prentsako kideei. Ainara Fresnera Ibonen bikotekideak adierazi du duela urtebetetik atzeratzen ari den epaiketaren zain daudela. Izan ere, haren egoera larria aintzat hartu, eta etxean artatua izateko erabakia hartzea espero dute. Gaitza dela eta, espetxean ugaltzen diren birusak hartzeko erraztasuna du, eta edozein gaixotasunek (azken hilabeteetan jasan behar izan dituen gastroenteritisak edota gripeak, kasurako) esklerosiak

HERRIKO PRESOEN SENIDEEK HAIEN ESPERIENTZIAREN BERRI EMANGO DUTE ASTEARTEAN

sortzen dizkion minak areagotzen dizkiote.

Legeak jasotakoa bete

Inaxio Oiartzabal Sareko bozeramaileak ohartarazi du egun Espainiako eta Frantziako espetxeetan larri gaixo dauden 21 preso daudela. Legeak jasotakoa betez gero, preso horiek etxeratuak izango liriteke, gaitza sendaezinak baldintza duinetan artatuak izan daitezten.

Sare Herritarrak eta Fernandez Iradiren senideek baikortzat jo dute adierazpena aho batez onartu izana. Izan ere, nabarmendu dute erakundearen babes eta bultzada beharrezkoa dela presoaren auzia konpontzeko.

Lasarte-Orian hainbat ekitaldi egin dituzte presoaren alde; horien artean, sinadura bilketa antolatu dute. Hurrengo asteartean, hilaren 26an, herriko presoaren senideek haien bizipenak emango dituzte Mercero aretoan.



Laz egin zuten Adinkideren aurkezpena. TXINTXARRI

Adinkidek lehenengo jaialdia antolatu du hilaren 30ean

Zaharren bakardadea murrizteko lan egiten du gobernuz kanpoko erakundeak. Laz ezarri zen herrian

Txintxarri

Datorren larunbatean, hilaren 30ean, Adinkidek jaialdia antolatu du. Bi euroren truke, hiru talderen musika emanaldiaz gozatu ahal izango da. Horieta bi oso ezagunak dira herrian: Alboka abesbatza eta Lasarte-Oriako danborrada. Bestea Getariako Musika Banda da; hor aritzen da gutxienez lasarteoriatar bat. Adinkideko kideen lanaren berri eman nahi dute jaialdiarekin, elkartearen sarea Lasarte-Orian eratzeko eta boluntarioak lortzeko. Sarrerak hilaren 28an

eta 29an jarriko dituzte salgai, 18:00etatik 19:00etara; eta larunbatean bertan, 17:00etatik 19:00etara.

Getariako Musika Banda Gipuzkoako zaharrenetarikoa da; 30 bat musikarik osatzen dute. Hiru pieza joko dituzte eurek bakarrik, beste hiru Alboka abesbatzarekin, eta beste bi danborradarekin. Aldez aurretik herrigunean joko dute.

Albokako 30 kantariak beste lau abesti kantatuko dituzte eurek bakarrik. Danborradak itxiko du jaialdia, Lasarte-Oriako ereserkiarekin.



ISAAC FARRE RICO

Lagunartean ardoa dastatzen

Aterpea merkatarien eta ostalariren elkarrekin antolatutako ardo dastatzearen beste saio bat egin zuten asteazkenean, Isla Plaza ardotokan. Ignacio Marin upategiaren ardoak dastatu zituzten tabernan bildutako 37 pertsonen.



Jon Antxordoki Euskara Zerbitzuko burua, diru laguntzak aurkezten. TXINTXARRI

Euskara ikasteko bekak martxan jarri ditu udalak

67.000 euroko poltsa du Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak diru laguntzak emateko. Zati handiena, 60.000 euro, euskara ikasteko beketara bideratuko dute. Ikasturte honetan aritu diren herritarrek matrikularen %85 arte jaso dezakete

Txintxarri

Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuak diru laguntzen deialdia aurkeztu du. Jon Antxordoki Euskara Batzordeko buruak eman du aurtengo diru laguntzen kopurua: 67.260 euro. Gehiena euskara ikasteko laguntzetara bideratuko dute. Iaz aurkeztutako diru laguntza lerro berberak ditu euskara sailak. Aldatzen dena kopurua da. Iazkoarekin alderatuta, diru poltsa handiagoa du eskura udalak.

Euskara ikasteko bekek hartuko dute zatirik handiena. Guztira, 60.000 euro. 2018-2019 ikasturtean euskara ikasten aritu diren herritarrek matrikula prezioaren %85 arteko beka jaso dezakete. Ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.

Halere, euskara ikasleek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Hasteko, Lasarte-Orian erroldatuta egon beharko dute, eta ikastaroan gutxienez %85eko

asistentzia bete. Diruz lagundutako ikastaroak hauek dira: euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa; gutxienez hilabeteko barnetegia; eta udako ikastaroak.

Bestalde, unibertsitateetako udako ikastaroak euskaraz eginez gero, martikularen %50 arteko diru laguntza jaso ahalko da. Unibertsitateko ikasleek, langabetuek eta erretiratuek jaso dezakete beka hori. Beranduenez urriaren 31rako egin behar da eskaera.

Aisiako begirale eta zuzendari titulua ateratzen dutenek ere eska dezakete diru laguntza. Iazko irailaren 1aren eta aurtengo abuztuaren 31 bitartean begirale edo zuzendari ikastaroa ateratzen

SEI DIRU LAGUNTZA LERRO AURKEZTU DITU UDALAK; IAZKO KOPURUA ZERTXOBAIT HANDITU DU

dutenei emango zaie. Matrikularen %50 artekoa izango da kopurua, gehienez ere 250 euro begiraleentzako, eta 150 zuzendarientzako.

Enpresak euskalduntzeko

Gidabaimena euskaraz ateratzea bultzatzeko ere laguntzak bideratzen ditu Euskara Zerbitzuak. Buruntzaldean zozketatzen diren hamar sarrietatik bat jartzen du udalak. Teorikoaren balioa ordaintzen dio sarituari, gehienez ere 400 euro.

Enpresetako eta elkarteetako jarduerak puntuak euskalduntzeko laguntza lerroa ere izango da aurtengo. Besteak beste, errotuloak, irudia, eta web orria euskalduntzeko laguntzak dira.

Azkenik, *Baietz Gurean* programa finantzatzeko 2.100 euro jarri ditu udalak, hamar langile baino gehiagoko enpresetan jarduerak euskalduntzeko.



Bruneteko etxea, Etxegorri bezala ere ezagutua. LASARTE-ORIAKO UDALA

Toponimiaren webgune berria aurkeztuko dute asteazkenean

Euskara Zerbitzuak herriko leku izenen azterketa egin du. Emaitza ikusgai dago sarean: 'toponimia.lasarte-oria.eus'

Txintxarri

Nondik gatoz? Nortzuk gara? Galdera horiei erantzuteko informazio asko ematen dute toponimoek. Izan ere, leku izenek bertako hizkuntzari, bizimoduari, ohiturei, gertaera historikoei edo sinesmenei buruzko xehetasun asko gordetzen dituzte. Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak toponimoen azterketa egin du, eta emaitza publiko egin, webgune bat sortuta. Hain justu, datorren asteazkenean, hilaren 27an, lan horren emaitzak eta webgunea aurkeztuko du Mercero gunean, 18:00etan.


Jende askok ekarpenak egin ditu toponimiako azterketa osatzeko. Ahozko toponimoen jasoketa ikerketaren atal garrantzitsua baita. Informatzaile horiek ere gonbidatu dituzte ekitaldira, ikus dezaten emaitza.

Webguneak 700 toponimoren zerrenda alfabetikoki ordenatuta eta geolokalizatuta eskaintzen ditu. Gainera, 500 argazkitik gora daude ikusgai. Sailkapenaren arabera eta testuaren arabera bilatzeko aukera dago. Azalpen dibulgatiboaz gainera, toponimoen forma dokumentalak eta ahozkoak ere erakusten ditu.

Ateak irekitzeko gonbita luzatu du Caritasek bere kanpaina

Txintxarri

Ireki ateak. Horixe da Caritasek bere kanpaina berrian luzatu duen gonbidapena. "Atea irekitzea harrera egitea edo jasotzea baino gehiago da. Entzutea baino, begiratzea, ikustea eta gure inguruan ditugun pertsonekin hunkitzea". Caritasek arabera, atea irekitzeak "interpelatzea, ukitzea eta guregan eragiten uztea" esan nahi du. "Are gehiago, gure erosotasun gunetik ateratzea, gure berekoikeriak onartzea, elkarrekin hitz egiteko aukerak ematea". Atera bidera lelopean, katekesiko haurrek gai horren inguruan ondoko manifestua egin dute: "Guztiona



Hurrek egindako afixa. CARITAS

den mundu bat nahi dugu: justua eta bakean, maitasuna, adiskidetasuna eta berdintasuna nagusi dituen, eta goserik gabea".



Kukukaren obra bat, kultur etxean. TXINTXARRI

Larunbatean ospatuko dute Antzerkiaren eguna, kalean

Kukuka Antzerki Eta Dantza Eskolak kaleak kulturaz eta antzerkiz beteko ditu nazioarteko egunaren harira

Txintxarri

Nazioarteko Antzerkiaren Eguna martxoaren 27an da, baina aurten osteguna denez, ospakizunak aurreratu egin ditu Kukuka Antzerki Eta Dantza Taldeak: larunbat honetan egingo ditu Antzerki topaketak, hilaren 23an. Laugarren aldiz antolatu du taldeak jaialdia.

Horrelako egunek garrantzi handia dute. Izan ere, antzerkia eta kultura kalera ateratzeko balio dute, herritarrengana zuzenean iristeko. Horixe bera egingo dute larunbatean, egun osoz: Lasarte-Oriako kaleak antzerkiz busti.

Goizean hasiko dute egitaraua; Sasoetako gimnasioan Zirko Tailer irekia egingo dute, 10:00etatik eguerdira arte. Parte hartu nahi duen edozeini zuzenduta dago, baina haur bakoitzak heldu batekin joan beharko du. Horretarako, izena eman beharko da; 655 847 345 telefonora deitu edo kukuka@kukuka.eus e-postara idatz daiteke. Zirkoa Iraitz Lizarraga

GOIZEAN ZIRKO TAILERRA EGINGO DUTE TXIKIENTZAKO, ETA ARRATSALDEAN, KALE IKUSKIZUNAK

billabonatarrek emango du. Iker Galartza eta beste aktoreekin dabil *Gure Zirkoan*.

Baina Sasoetan ez da amaituko goizeko egitaraua. 12:30ean *Pirata Garrapata* haurrentzako antzerkia emango dute, Patata Tropikala taldearen eskutik.

Azkenik, arratsaldeko ekitaldiak herriko kaleak hartuko ditu, Okendo plaza erdigunean jarrita. Kukukako ikasleek antzerkiak egingo dituzte han eta hemen, eta bukaera herriko plazan egingo dute.

Egitaraua

10:00-12:00

• **Zirko tailer irekia** Haur bakoitza heldu batekin. Izena emateko: 655847345 edo kukuka@kukuka.eus.

12:30

• **Antzerkia** Pirata Garrapata antzezlan, Gaztelekuan, Patata Tropikalaren eskutik.

17:00-19:00

• **Kukukako ikasleen antzerkiak** Herriko kaleetan, eta bukaera Okendo plazan.

Eskiatzen Valdezcarayn

Ttakun Kultur Elkarteko Kuadrillategi ekimeneko gazteek Valdezcarayko eski estaziora, Errioxara, irteera egin zuten joan den igandean. Urtero antolatu ohi du Kuadrillategi eskiatzeko irteera. Azkenean autobusa ateratzea lortu zuten, eta 25 bat gazte animatu ziren, begiraleekin batera, eskiatzera. Lainotu samar egin zuen goizaldean, baina arratsaldean eguraldi onaz gozatu ahal izan zuten.



TXINTXARRI

m
Mondragon
Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

“Barneratzen ditugun jakintza guztiak praktikan jartzeko aukera izaten dugu”

Unai Elizegi Rodriguez (Lasarte-Oria, 19 urte) Prozesu Industriale-tako Ekoteknologieng Ingeniaritza graduako 2. maila ari da ikasten Mondragon Goi Eskola Politeknikoan, Orona Ideo campusean, hain zuzen ere.



Zergatik aukeratu zenuen Ekoteknologiako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Betidanik teknologien mundua gustukoa izan dudanez, batxiler teknologikoa egin ondoren, argi nuen ingeniari bat egin nahi nuela. Gradua hautatzeko orduan bereziki erakarri ninduen aspektua ikasitakoa praktikan jarri ahal izateko aukera izan zen. Izan ere, Mondragon Unibertsitatearen ikasketa ereduarekin ikasleok barneratzen ditugun jakintza guztiak praktikan jartzeko aukera izaten dugu, seihilabetero egiten ditugun proiektu eta praktiken bidez.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia oso positiboa izan dela deritzot. Interesa nuen gai askoren inguruan ikasteko aukera izan dut eta ikasteko beste gauza asko geratzen zaizkit hurrengo urteetan. Horrez gain,

jende berri asko ezagutzeko aukera izan dut. Horregatik, duela bi urte gradu hau ikasteko hartutako erabakia zuzena izan zela uste dut.

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Metodologia oso baliagarria iruditzen zait, lehen esan bezala ikasten duguna praktikan jartzeko aukera izaten baitugu. Horrela, klaseak ematen diren bitartean, ikasten ari garenen inguruko praktikak egin ohi ditugu. Gainera, seihilabetea bukatu baino lehen, klaseak eten eta proiektu bat egiten dugu. Bertan, klaseetan zehar landutako kontzeptuak praktikan jarri eta beste zenbait kontzeptu gure kabuz barneratzea eskatzen zaigu. Modu honetara, ikasten duguna errealitatean aplikatu eta hobeto barneratzeko aukera izaten dugu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Unibertsitatetik gehien gustatzen zaidana eskaintzen dizkiguten erraztasun guztiak dira, edozein ezusteko gertatzerakoan beti izaten baitugu nora joan laguntza eske. Horrez gain, aipatzekoa da ere campusean ditugun erreminten aniztasuna eta gure proiektuetan erabiltzeko dugun askatasuna. Arazo bat, guztiok proiektuan gaudenean etortzen da, batzuetan erremintak eta makinak denontzako ez direlako egoten. Hala ere, campusa nahiko berria denez, hurrengo urteetan zehar hobetuko den gauza bat izatea espero dut. **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Oraingoz ikasten jarraitzea eta mailak gaintzen joatea da nire helburua. Bukatzerakoan, ikasteko indarrarekin jarraitzen badut, ikasketei jarraitasuna ematea gustatuko litzaidake, eta horrela ez bada, lanean hasi edota lana eta ikasketak tartekatzean pentsatuko nuke.



Erabakitze eskubidea estatutu berriaren zirriborroaren oinarrietako bat da, eta aurrera begirako bidea, galdeketa egitea. TXINTXARRI

"Erronka kolektibo batean sartuta gaude"

IÑIGO URRUTIA LIBARONA GURE ESKU DAGOKO KIDEA ETA ZUZENBIDEAN ADITUA
Atontzen ari diren estatutu berriaren zirriborroak oinarri du erabakitze eskubidea eta gizarte eskubideetan sakontzea. Edukia azaldu eta ekar ditzakeen aukeren inguruan mintzatzeko da, argi du haiek gauzatzeko gizartearen babes ezinbestekoa dela

Maitane Aldanondo

Iñigo Urrutia Libarona (Maruri-Jatabe, 1966) aurkezteko hainbat gauza aipatu behar dira. Zuzenbidean doktorea da, EHUko irakaslea, bertako Aldezle – unibertsitateko kide guztien defendatzailea –, Gure Esku Dago herri ekimeneko kidea eta Estatutu berriaren testua osatzen ari diren bost adituetako bat. Azken zeregin horretan egiten ari diren lanaren inguruko zenbait azalpen emango dizkie lasarteoriatarrei, hilaren 30ean, Oriarte institutuan, 11:00etan. **Autogobernu taldeko adituetako bat zara. Zein da zuen zeregina?** Legebiltzarrean iazko uztailean oinarri batzuk onartu zituzten

autogobernua berrizatzeko. Ondoren, bost jurista izendatu zituen Legebiltzarrak bizkarrezur hori gorpuzteko, testu juridiko bilakatzeko. Parte hartzeko ohorea dut eta horretan gabiltza. **Udarako prest eduki behar duzue. Zein puntutan dago zirriborroa?** Mandatua hori da. Egia da hauteskunde giroak gauzak apur bat nahastu egin dituela, baina, hala ere, oraindik ez da inolako luzapenik eskatu. Beraz, gure horizontea aurtengo uztailea da. **Proposatuko duzuen estatus politikoa berriak zein ardatz izango ditu?** Modu orokorrean esan daiteke testuak autogobernu berri baterako bide ematen duela. Ezaugarri nagusietako bat du

espainiar estatuarekiko alde biko harreman bat sortu nahi dela. Hau da, estatutik estaturako harreman bat; konfederazio modukoa. Hiru probintziak modu konfederatuan egingo lukete Estatuarekin hartu-eman. Nafarroarekiko eta Iparraldearekiko harreman berezia izateko aukera ere jasotzen du. Euskal subjektu

"BADAKIGU EZ DELA BIDE ERRAZA IZANGO, BAINA ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO JAIKAK GARA"

politiko bat sortze aldera bideak ematen ditu.

Horrez gain, gizarte ikuspegitik ere aurrerapausoak dakartza.

Eskubideei begira jauzi kualitatibo bat egin nahi da, asko sakontzen du. Ikuspegi sozialetik testu aurrerakoia da eta gizarte itun berri baterako borondate argia erakusten du. Gernikako Estatutuak edo Nafarroako Amejoramentuak eskubide zerrendarik ez dute; baina honek hainbat eskubideren aitortza dakar. Batzuk Espainiako legediak, nazioarteko testuek... onartuak izan dira; baina honek jaso eta zenbait konfigurazio berri bat ematen die. Gizarte eskubideak asko zabaltzen ditu. Ingurumenari lotuta, zerbitzu sozialak, etxebizitza izatea... eskubide subjektibo bezala planteatzen dira eta horrek dakar botere publikoek beharra izango dutela horiek bermatzeko. Toki berezia

hartzen dute emakumeen eskubideek, orain arte erabat zokoratuak izan direnak.

Erabakitze eskubideak zer tarte du horretan guztian?

Autogobernurako urrats berri hau erabakitze eskubidean oinarritzen da. Eskubideen artean funtsezko eskubide bezala hartzen da, ia atal guztietan agertzen den zerbait da. Testua behin eginda Legebiltzarrera eraman beharko da berriro, eta ondoren, galdeketa bat egingo da hiru probintzietan harreman berri horrekin gizartearen konforme dagoen jakiteko. Interesgarria da nabarmentzea ez dela autonomismo gehiago, baizik eta bestelako harreman bat, konfederala eta erabakitze eskubidean oinarritua.

Independentziari atek ixten al dizkio?

Honek ez du mugatzen urrats sendoagoak egitea eta etorkizunean, adibidez, independentzia estatus bat lortzea. Independentziarako saltoa ez da egiten zuzenean, bitarteko geldialdi baten bitartez baizik.

Egungo testuinguruan, juridikoki egingarria al da?

Muga juridiko argiak daude. Ikusi da estatu espainiarrak zer nolako jarrera izan duen Kataluniako prozesuarekiko; baina, hala ere, ezin dugu ulertu hori jarrera normala denik, erabat antidemokratikoa da. Dagokiguna da demokrazian sakontzea, esatea, batetik, hori ez dela giza eskubideekin bateragarria; eta bestetik, erabakitze eskubidea gauzaten dela erabakiz, eta horretara goazela.

Zer rol joka dezakete herritarrek bide horretan?

Bi hitzetan, Euskal Herriak bere orokortasunean jauzi bat egin behar du, eta hori egiteko gizartearen inplikazioa funtsezkoa da. Badakigu ez dela bide erraza izango, baina zailtasunei aurre egiteko jaiokak gara eta demokraziaren alde egotea, eskubideen alde egotea da. Eraldaketak nahi baditugu, bultzatzea egin behar da; erronka kolektibo batean sartuta gaude, horrek ere bide emango dio gure demokratizazioari.

Gure Esku Dago urteotan piztu nahi izan du estatus politikoa inguruko eztabaida. Helburu hori lortu duzuela uste al duzu?

Bai. Sinetsita gaude Gure Esku Dagoren azken bost urteotako

lanik gabe gaur egun esku artean ditugun oinarri hauek ez liratekeela egongo. Hor ikusi da gizarteak funtsezko rola bete duela erabakitze eskubidea maila guztietara zabaltzeko. Hainbat sektoretan erabakiak bertan hartzeko gaitasuna aldarrikatzen da, gai sektorialetan, gazteak, jubilatuak, emakumeak... Maila politikoan gauza bera. Legebiltzarrean erabakitze eskubidea funtsezko eskubidetzat hartzen da eta momentu honetan ez du inork ere zalantzan jartzen. **Kontrola berreskuratu, nolabait?** Badirudi orain arte demokrazia edo erabakitze eskubidea beste batzuen esku egon dela, desjabetu egin digutela. Funtsezko erabakiak gure gizartetik at hartzen dira. Gizarteak dagokion erabakitze eskubidea berreskuratu egin behar du eta horretarako tresnak ematen dizkigu estatus berri honek. Erabakitzea, gainera, gai guztietan. **Egun gutxi barru, hilaren 31n, ezagutaraziko duzue mugimenduaren ildo berria. Zer aurrera dezakezu?**

Estatus aldaketarako tresna eraginkorrak eskatzera zuzenduko du indarra. Helburu argi bat agertzen zaigu hor: Erreferendum bat egitea erabakitze esparru bakoitzean. Horretara bideratu behar ditugu esfortzuak, eta gizarte hori bultzatzearen alde dagoela argi erakutsi digute mobilizaziek. **Ez dirudi gauzatzen erraza.** Badakigu zailtasunez betetako bide bat izango dugula; baina horiei aurre egiteko jaiotako gizarte batean bizi gara, Historiak hori erakusten digu. Une honetan dagokigu bide hori jarraitu eta irribarretsu zailtasunei aurre egitea; jakinda erreferenduma mugatu nahi bada, demokrazia mugatzen dela. Gu demokrazia zabaltzearen aldekoak gara, beraz, arrazoia badugu eta aurrera egin behar dugu. Honaino heldu gara gizarteak bultzatzea egin delako eta hemendik zerbait ateratzekotan, izango da gizarte gainean dagoelako eta bere arnasa politikoei ere somatzen dutelako kokotean. Bestela, zaila izango da.



Iñigo Urrutia Libarona adituak egiten ari diren lanaren berri emango du. UPV/EHU

UDALEKUAK LH3-LH6

LH: EGONALDIK ATERPETXEAN

LEZANA DE MENA (Lezana)

• LH3-LH4 uztailaren 15tik 22ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

167€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

180€



+ Udako Txokoak

Uztailaren 2tik 12ra, Udako Txokoetan lagunak egin eta gero... abentura elkarrekin jarraitzeko aukera izango duzue, eta Lezanatik bueltan Udako Txokoetan bukatuko dute hilabetea.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

255€

270€

10:00etatik 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

DONEMILIAGA (Errotazarra)

• LH5-LH6 uztailaren 2tik 13ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

231€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

250€

Betela



+ Udako Txokoak

Donemiliagako aterpetxean egon eta gero... uztailaren 15etik 30era abentura eta kirola Udako Txokoetan.

Jangela zerbitzua eskainiko da! (55€)

BAZKIDE
EZ DIRENAK

315€

330€

10:00etatik 9:00etatik

Ttakuneko bazkideentzat prezio bereziak

KTG kanpaldiak DBH1-DBH4

DBH: KTG KANPALDIK

DBH 1 eta 2
INGO AL DEU BA?
uztailaren 3tik 14ra

DBH 3 eta 4
MEZTIJAIA!
uztailaren 16tik 27ra

TTAKUNeko
BAZKIDEAK

241€

BAZKIDE
EZ DIRENAK

260€



Izen ematea: Ttakuneko bazkideentzat, iaz ibilitakoentzat eta Gazte Klubeko eta Kuadrillategiko gaztetxoentzat: martxoaren 20tik martxoaren 25era (barne).
Gainerakoentzat: martxoaren 26tik maiatzaren 10era.

UDA KO TXOKOAK
2019
Herria, udara, euskara

Izen emate epea zabalik:
apirilaren 1etik maiatzaren 10era
Ttakun Kultur Elkartean eta online



ONLINE
EGITEKO AUKERA!
Adi
www.txintxarri.eus
webgunean

Harrera etxea, Togoko gazteen etorkizunaren aldeko apustua

Haurrentzako eskola-laguntza eta Unibertsitatera joaten diren gazteentzako harrera etxea martxan jarri ditu Adsis mugimenduak. Lasarte-Oriako herritarrek proiektuari babesa emateko bazkari solidario bat antolatu dute

Nerea Eizaguirre

Adsis mugimendu erlijiosoak herrialde garatu eta ez garatuetan lan egiten du gizarte alorrean. Bere ardatzeko bat, gazteak dira eta gazteekin sentsibilizazio lana egiten du. Hegoameriketara hainbat proiektu martxan jarri ostean, mugimenduak Afrika zuen jo muga eta duela hiru urtetik hona, Togoko hiriburuan, Lomen hezkuntza proiektu bat ari dira gauzatzen. Lasarte-Oriako bizi den Carmen Alba (Bilbo, 1965) da proiektu horren arduradunetako bat eta azken hiru urtetan Togora joan da udan.

Adsisek Afrikan lan egiten duten beste mugimendu erlijioso eta elkarte batekin harremanak egin ostean, Togoan lan egiteko aukera suertatu zitzaion. "Afrikak behar handia du. Marianistekin harremanetan jarri ginen haien iritzia jakiteko. Urte asko daramatzate Afrikako hainbat herrialdeetan lan egiten. Togo proposatu ziguten, herrialde adiskidetsua delako. Beste herrialde batetara salto egitea, arriskutsua izango litzateke, biolentzia, egoera politiko ezegonkorrak... Marianistek gainera, Lome hiriburuan gazteentzako etxe bat dute. Togoko herrixka batera joan ahal ginen, baina Afrikan gure lehen esperientzia izanik, gauzak ongi aztertu eta babes bat bilatu behar genuen".

Duela hiru urte joan zen lehenengoz Alba Togora, hamalau gazterekin batera, egoera ezagutu eta harremanak egitera. Marianisten laguntza izan zuten eta aisia kanpamentuak antolatzea eskatu zieten. "Ez genuen espero, 300 bat gazte eta haur bildu ziren. Gainezka egin zigun. Baina oso interesgarria izan zen. Nik etxera deitzen nuenean, begiek min egiten zidatela esan ohi nuen, begiek ez zidaten hainbeste ikustea ahalbidetzen. Eta hori hiriburua izanik. Afrikak gaindi egiten du".

Lehen esperientzi horrek proiektuaren ardatzak zehazteko balio izan zuten eta bi arlotan lagundu behar zutelako ikusi zuten. Batetik, eskola-laguntza. Marianistekin batera talde bat sortu dute, non unibertsitateko gazteek haien anai-arrebei, auzokideei edo ezezagunei laguntza eskolak ematen dizkieten. "Oraintxe 100 gazte baino gehiago daude inguru hauetan eta jarraipena egiten zaie, ez bakarrik eskola laguntza saioetan, baita familietan ere".

Unibertsitatean jarri zuten beste jomuga. Hasieran, ez zuten oso argi nola egin. "Gure joan eta etorrien datengatik ezin genuen ezer egin. Udan goaz, ikasturtea amaitua dagoenean". Baina beste mugimendu erlijioso baten harrera etxea edo foyera ezagutu zuten. "IMEI

mugimenduak horrelako etxe bat du. 20 urte dira horretan lan egiten dutena. Eta haien estiloa bat zetorren guk nahi genuenarekin. Iparraldetik unibertsitatera ikastera doazen neska eta mutilentzat harrera etxea".

Herria garatzearen alde

Azken urte honetan harrera etxea prestatu eta lehen gazteak hartu dituzte. "Alokairuko etxe batean hasi ginen, eta orain, Kanadan bizi den familia bati esker, lekuz aldatuko gara. Gure ideia gustatu zaie eta Lomen utzita duten etxea, alokairu txiki baten truke utziko digute. Haiek ere Togoko gazteak bertan ikasi eta herria garatzearen aldekoak dira".

Oraingoz, lau mutil dituzte. Gazte hauek Togo iparraldetik datoz eta umezurtzak dira. "Iparralde eremurik txiroena da. Gazteak familiek daukaten diru guztiarekin datoz hiriburura. Baina Lomen bizitzea, etxe bat aurkitzea, jatekoa izatea... zaila da. Horri guztiari, unibertsitateko matrikula gehitu behar zaio eta ikasketa mailan ez jaitea. Izan ere, gobernuak laguntzak ematen dizkie gazteei, baina gairen bat ez gaindituz gero, kalean geratzen dira".

Gazteek haien gastu guztiak ordainduta dituzte harrera etxean dauden bitartean. "Gakoa da, guk ematen dieguna, haiek ere



Loméko erdialdea garatuagoa den arren, inguruko auzoetan etxoletan bizi dira, etxe

edonola eskaini behar diotela auzoari. Etxeak ateak irekita izatea nahi dugu. Lorategi polita dugu etxe berrian eta bertan auzoko gazteekin tailerrak eta ekintzak egiteko aukera izango dugu".

Harrera etxea, gainera, bertako jendearen eskuetan egongo da. "Guk ekonomikoki lagunduko dugu, baina bertako jendea izango da horren kargu. Guk ez dugu bertan bizi nahi, lagundu nahi diegu. Guk baliabideak emango dizkiegu bakarrik ibiltzeko. Sostengarria izatea da helburua. Haiek guztiaren gain hartzea".

Horretarako, Togoko bi pertsonak hartu dute etxearen zuzendaritza. "Hezkuntza mailako jarraipena Sylvainek egiten du eta etxeko eginkizunak Inmaculek daramatza. Sylvainek ekonomia ikasketak bukatu berri ditu. Iaz Gurutze Gorriarekin eta IMEIEkin foyer bat nola eraman ikasi zuen. Gure laguntzarekin, master bat egiten ari da eta hori amaitzean, lana aurkitzen badu,

"EZ DUGU BERTAN BIZI NAHI, LAGUNDU NAHI DIEGU. BALIABIDEAK EMAN BAKARRIK IBILTZEKO"

beste gazte batek hartuko du bere lekua. Postu hori zirkularra izatea nahi dugu. Inmacule, berriz, ezkondu gabeko emakumea da eta haurrik ez du. Hori ez da oso ohikoa. Berarentzat salto bat da, gurasoen etxetik atera eta ekonomikoki independente izango da".

Eta ekonomia zirkularra martxan jarri nahi dute. Hau da, etxea sostengatzeko dirua haiek lortzea, ez daitezela hemengo diruaren menpe egon. Proiektua aurrera eramateko



Lomeko herritarrek salerosketetatik bizi dira.



askotan ez dago urik eta kaleak asfaltatu gabeak dira. C. ALBA

laguntza gutxi batzuk jasotzen dituzte. Gehiena jendearen borondate onari esker lortu dute. "Hori zaila da, proiektuak haien ikasketetan eragin dezakeelako. Baina garrantzitsua dela deritzogu, gazteek erantzukizuna hartzen dutelako".

Udako egonaldiaren ostean, Espainian dagoen jarraipen batzordeak proiektuko hurrengo pausoak zeintzuk diren zehazten du. Uda honetan, auzoan egin daitezkeen ekintzak eta erabakiko dituzte eta hurrengo ikasturtean,

esate baterako, gazte kopurua handitzea espero dute. "Gure ideia da zortzi edo hamar izatea eta neskak ere egotea. Baina emakumeak nahiko babestuak daude. Hau da, ez diete edozein elkarteri emakumeekin lan egiten uzten. Baimen antzeko bat izan behar duzu. Hara iritsi eta harrera etxe misto bat irekitzea horrelako baimenik gabe, ez zen egokia. Horregatik, lehenik lan egin, ezagutzera eman, eta ostean, baimena lortzean mistoa egitea zen helburua. Apezpikuaren baimena dugu orain, etxe berria atondu, eta hurrengo urtean, bertan neska eta mutilak hartzea espero dugu".

Garatzen ari den herria

Orokorrean, hemen duela 60 edo 70 urte bezala bizi dira Togon. "Etxe askotan ez dago urik, Lome hiriburuan erdiguneko kaleak daude asfaltatuak gainontzekoak lurra dira".

Bizirauteko salerosketaz baliatzen dira Lomen. "Kalean denetarik saltzen dute. Gasolina asko saltzen dute. Ez dago ia garraio publikorik, autobus bat 4 ordutan behin ikusi dezakezu. Taxi eta motorretan ibiltzen dira. Horregatik, gazteek gasolindegian gasoila erosi eta auzoetan saltzen dute. Janari

Togorekin senidetze jaialdia

Harrera etxeko proiektua martxan jarri zenetik Lasarte-Oriako herritarrek era batera edo bestera haien harritxoak jarri dute. Misio taldeak hiru urte hauetan hainbat afari solidario antolatu ditu, esate baterako. Orain herritar guztiei proiektuaren berri emateko bazkari solidarioa egingo dute, martxoaren 30ean, Arantzazuko Ama Birjina elizako aretoan. Tiketak jarri dituzte Ormazabal loradendan, 12 eurotan.

Proiektu hau Lasarte-Oriako herritarren sentsibilizazioa lantzeko baliagarria izatea nahi dute. "Biltzen den diru kopurua ez da garrantzitsua. Sentsibilizazioa lantzeko, bertako egoera ezagutzea eta guregan eragina izatea du garrantzia. Togo eta proiektua ezagutzea, haiekin enpatizatzea, Sylvain eta gazteak ezagutzea..."

Horretarako, batetik, Albarekin batera proiektuan lanean ari den Joan izango da bazkarian, eta bestetik, teknologia berriei esker,



Bazkari solidarioa iragartzeko erabilitako kartela. ADSIS

harrera etxeko kideekin harremanetan jarriko dira zuzenean.

Gazteek ere egoera ezagutzea nahi dute, eta horregatik, elizako gazteek giltzatak egin dituzte bazkarian saltzeko. "Gazteekin joan gara Togora eta bertako gazteekin zubi lana egin ahal dute. Agian, etorkizunean, boluntario talde bat sortu daiteke".

Giltzatakoez gain, Togoko produktuak ere izango dituzte

eskuragarri bazkarira doazen lagunek.

Halaber, 0 mahaia izango da bazkarira joan ezin diren herritarrek lagundu nahi badute.

Hau guztiaz gain, Togo eta Afrikarekin harremana izan nahi duten herritarrentzat bide izan nahi dute eta haiekin bidaiatzeko aukera emango dute. Uda honetan, Lasarte-Oriako bikote bat Togora joango da, esate baterako.

eta hainbatek egoitzak ireki dituzte bertan. "Horiek langileek hezkuntza maila altua izatea eskatzen dute, masterra izatea gheienetan".

Gobernuak eta familiek ere hezkuntzaren alde egiten dute. "Familiek haur eta gazteak eskolara joateko ahaleginak egiten dituzte eta Gobernuak laguntza asko ematen ditu, baina sistema zorrotza du. Hiru urteko zikloak egiten dituzte eta azterketa bat gainditu behar dute. Beraz, gutxi iristen dira Batxilergora eta gutxiago Unibertsitatera".

Gazteek ikasteko gogoak dituzte eta gazte mugimendu handia dago. "Togo oso herrialde gaztea da. Gazte asko dago eta indarra dute. Herria mugitzen ari da. Gazteak unibertsitatera iristen ari diren heinean garatzen ari da Togo eta begirada feminista ere oso indartsua da, emakume asko ari da unibertsitatera iristen. Pixkanaka emakumea lan

"GARAPEN BIDEAN DAGOEN HERRIALDEA DA, JENDEAK BERE HERRIAREN ALDE EGITEN DU LAN"

ezberdinetan ikusi daiteke, armadan, polizian... Baina egoera ekonomikoaren arabera, neskak unibertsitatera iristen dira".

Egoera honek, ordea, badu kontraesan bat. Unibertsitateak indarra hartzen duen heinean, egungo erregimenaren aurkako ahotsak ugariagoak dira. "Gazteek pentsaera kritikagoa dute, beste ikuspuntu batzuetara irekitzen dira... Egun dinastia bat dago indarrean eta estatu demokratikoago bat eskatzen ari dira. Mobilizazioak egiten dituztenean, unibertsitatea itxi eta etxeratze-aginduak ezartzen dituzte. Epe luzeak egon daitezke klaserik gabe eta agindua ematean berriro irekitzen dira. Batzuetan ikasturte bat hurrengoarekin batzen da".

Honez gain, gazteek beste hainbat zailtasuni aurre egin behar diete. "Unibertsitatea ez da hemen bezala, ez daude ikasgelak. Parainfoak dira eta mila pertsona sartzen dira. Baina ez dago guztientzat lekurik. Kanpoan geratu daitezke. Klasera doanak apunteak hartu, eta gero, kanpoan zeudenei diru-kopuru txiki bat ordainduta azalpenak ematen dizkiete. Horregatik gure gazteek bizikletak eskatu dizkigute. Baina orain ezin dizkiegu erosi".



Azoka Lasarte-Oria bezain handia da. C. ALBA

Gatazkak bertatik bertara ezagutzeko maratoniak

TOMAX ARRUTI KORRIKALARIA

Harremanak egiteko modu bat da kirola. Bartzelonako maratonia bigarren osatu du Arrutik, 11 urteren ondoren. Giroa zeharo aldatu da hirian: "Aldarrikapena handia da"

Adrian Garcia

Maratoiko horma deitu ohi zaio 30. kilometrotik aurrera korrikalariak sufritzen duen oinazeari. Tomax Arrutik (Lasarte-Oria, 1970) ongi prestatzen ditu 42 kilometroko lasterketak; baten batzuk eginak ditu dagoeneko, eta ez du azken zatiko sufrikario hori ezagutu. "Mina buruan dago, ongi kontzientziatuta joaten naiz". Haatik, beste mota batzuetakoak dira ikusten dituen hormak. Izan ere, gatazka politikoetan nahastu diren herrialdeak bisitatzeko eta ezagutzeko baliatzen ditu lasterketak. Bartzelonan egin zuen lehena, 2008an. Sahara, Belfast eta Euskal Herrikoak egin ditu ondoren, eta orain zirkulua itxi du: Kataluniako hiriburuko maratonia osatu zuen joan den astean.

Orain 11 urte egin zuen maratoni berbera, eta nahiz eta ibilbidea zertxobait aldatu, denbora oso

antzekoa egin du: 3:30 ordu. "Hiriari itzuli bat egiten dio, gune esanguratsu guztietatik pasatzen da. Nou Camp, Familia Santua, Ciutadella... Festa handia da, 17.000 korrikalari baino gehiago geunden. Animazio handia dago; musika taldeak edonon jotzen...".

Hiru hilabete eta erdi


Baina ibilbidea baino zerbait gehiago aldatu da Bartzelonan urte horietan guztietan. Izan ere, aurtengo giroak ez du zerikusirik lehen maratonia egin zuenekoarekin. "Apustu bat egin dute, eta zigorra jasaten ari dira. Buruzagi politikoak epaitzen ari dira, eta kalean aldarrikapena handia da".

Entrenamenduen planteamenduarekin armatu du; orain 11 urte erabilitako prestakuntza fisiko berbera egin du. "Borja Apeztegia laguna dut, eta hark prestatu zizkidan entrenamenduak".

Urte osoan korri egiten du Arrutik, baina helburu finkorik gabe. Maratonia prestatzeko hiru hilabete eta erdi lehenago hasten da. Denbora horretan astean bostetan entrenatzen du, kilometroak batzen joateko. "Gogorra da, zure buruari asko eskatu behar diozu".

Irizpide horiek jarraituta egin ditu maratoni guztiak. 2008ko Bartzelonako haren ondoren Saharakoa egin zuen, Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetan, Aljerian. "Ez da korri egitea bakarrik. Aste bat igarotzen duzu haiekin bizitzen. Orduan ikusten duzu zein den kanpalekuetako errealitate gordina". Bidaia haiekin sortu zuen Arrutik, beste batzuekin batera, Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak.

Kirolaz gozatzeko modu berezia du lasarteoriarrak; turismoa egin bakarrik ez, gatazka politikoak ezagutzeko eta harremanak egiteko



Arruti, maratonia bukatutakoan. TXINTXARRI

baliatzen ditu maratoniak. "Pat Rice [Sinn Feineko kidea] ezagutu nuen Belfasten, eta haren etxean egon ginen. Lizartzan du etxea, eta hona etorriko dira abuztuan".

Katalunia, Sahara eta Ipar Irlandan korri egin ostean, Euskal Herrian ere osatu ditu maratoniak; 2014an Bilboko

gauekoa, eta urtebete geroago Donostiako. Hurrengo egitera nora jo oraindik ez du argi, baina baditu aukerak. "Zoritxarrez, gatazka asko daude munduan. Sahararren lurraldean gustatuko litzaidake egitea maratoni bat, Mendebaldeko Saharan. Baina ez dirudi posible izango denik".

ASTEBURUKO HITZORDUAK


FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Touring KE Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Vasconia CD Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Zumaiako FT - Ostadar SKT Igandea. 16:00. Aita Mari, Zumaijan.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Behobia CD A - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Artia, Irunen.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Orioko FT Larunbata. 13:15. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Danena KE A - Ostadar SKT B Larunbata. 13:30. Elbarrena. Zizurkilan.
Ostadar SKT A - Danena KE B Larunbata. 10:00. Michelin Kirol gunean.
INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA

Ostadar SKT - Eibar SAD Larunbata. 11:30. Michelin Kirol gunean.
INFANTIL TXIKIAK, PARTE HARTZEA
Oreleta Kafea FC - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Beraun, Erreterian.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Euskalduna SD - Ostadar SKT B Igandea. 10:45. Ubitarte, Andoainan.
Udarregi Usurbil B - Texas Lasartearra Larunbata. 12:00. Harane, Usurbilen.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Insausti taberna - Izen gabe Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Trumoi taberna - Academia London Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Patricio Cocktail Bar - Avenida taberna Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Viña del Mar - Asador Irigoien Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.
3. NAZIONALA
San Jorge Santurtzi - Antiguoko KE Larunbata. 16:30. M. Trueba kir., Santurtzin.

GIPUZKOAKO SENIORRA
Garoa Taberna - Anoeta FT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO I. MAILA
Aurrera KE - Aldaz Klinika Ostirala. 20:30. Amazabal kir., Leitzan.
GIPUZKOAKO II. MAILA
ISU Leioak - Mondrate CD Igandea. 11:10. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO JUBENILAK
Bar Lasarte - Antiguoko KE Botaleku Larunbata. 11:20. Maialen Chourraut kir.
GIPUZKOAKO KADETEAK
Balardi Harategiak - Arizmendi Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
SASKIBALOIA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Bera Bera Gros Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Zalburi Debasket - Ostadar SKT Ostirala. 19:30. Deba kiroldegia, Deban.

JUNIOR ERRENDIMENDUA
Grupo Eme Oiarso SKT- Ostadar SKT B Larunbata. 12:30. Don Bosco, Erreterian.
JUNIOR PARTE HARTZEA
Bera Bera Uliia - Ostadar SKT B Igandea. 12:00. Paco Yoldi, Donostian.
KADETE PARTE HARTZEA
Bergara Soralue KE - Ostadar SKT B Larunbata. 10:45. M. Lagundia, Bergaran.
GIMNASTIKA ERRITMIKOA
TXAPELKETA AMATEURRA
LOKE-ko gimnastak lehiatuko dira pilota, aro, soka eta mazoekin. Igandea. Egun osoa. Ibarra.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Bathco Rugby Club - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. La Albericia, Santanderren.
18 URTEZ BEHERAKOAK
La Unica - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 11:00. Iruñean.

16 URTEZ BEHERAKOAK
La Unica - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 10:30. Iruñean.
DUATLOIA
ONATIKO DUATLOIA
Trinkoko kideek eta Andoni Illarramendik parte hartuko dute proban, 37 kilometro bizikletaeta 5 kilometro korrika. Igandea. 16:00. Foruen enparantza, Donostian.
LASTERKETA
XXXI. LEKUNBERRIKO LEGOA
Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko dute 6 kilometroko proban. Igandea. Egun osoa. Ibarra.
XXII. EUSKAL KROSA
Landaberri Guraso Elkarteak Eneko Castroren omenez antolatutako lasterketa. Igandea. 11:00. Garaikoetxea eraikineko patioan.



Beñat Negrodo aurrelaria eraso bat gidatzen, Anaitasunaren aurka lehen itzulian jokaturako partidaren (1-2). TXINTXARRI

Bost norgehiagoka kategoria mantentzeko

Liga bukatzeaz dela, sailkapeneko azken postuan dago Ostadar SKT. Jokoan geratzen diren hamabost puntuetatik hamabi bat poltsikoratu beharko ditu aukeraren bat izateko; zaila, baina ez ezinezkoa. Asteburuan 4-1 galdu du Anaitasunaren aurka

Iñigo Gonzalez Sarobe

Balentria handia egin beharko du Jubenilen Ohorezko Mailan lehiatzen ari den Ostadar SKTk, kategoria mantenduko badu. Liga bukatzeko bost partida falta direla, sailkapeneko azken postuan daude urdin-beltzak 22 punturekin. Salbazioa zortzira dauka uneotan, asteburuan Anaitasunaren aurka 4-1 galdu ondoren. Zaila, oso zaila, baina ez ezinezkoa. Gertatu dira gauza sinesgaitzagoak futboleant.

Asier Sanchez eta Iker Fernandinoren taldeak misio oso zaila zeukan Azkoitian. Anaitasuna oso talde gogorra da, denboraldirik onena egiten ari ez bada ere. Etxean, hala ere, sendo ari da, eta markagailuan aurreratzen bada, zaila da puntuek Txerloiatik alde egitea. Hori gertatu zen larunbatean: seigarren minutuan sartu zuten gorriek 1-0eko. Sailkapeneko azken postuetan zaudenean, dinamika negatibo batean murgilduta, jasotako gol bakoitza labankada bat izan ohi da; sakona eta

odoltsua. Ostadarrek ongi itxi zuen zauria, bi minutu geroago sartu zuelako berdinketaren gola Victor Masa erdilariak. Atsedenaldira arte ongi aritu ziren urdin-beltzak eta berdinketa mantentzea lortu zuten.

Bigarren zatian, ekaitza

Zerua eguzkitsu zegoen larunbat arratsaldean, baina tximistek eta trumoiak hartu zuten berdegunea. Ekaitza izango balitz bezala jokatu zuen Anaitasunak, eta aterkirik gabe harrapatu zuen Ostadar. Hamahiru minutu besterik ez zituen behar izan garaipena zaku barruan sartzeko; hiru gol sartu zituen 57. eta 70. minutuen artean. Ostadar saiatu zen erreakzionatzen, baina beranduegi zen. Aulkian, gainera, arma gutxi zituen partida irauli ahal izateko: hiru jokalarik baino ez.

Datorren asteburuan hil ala biziko norgehiagoka jokatu dute lasarteoriatarrek. Zumaiakori egingo diote bisita. Kostako taldea da salbazioaren

muga markatzen duena, 30 punturekin. Urdin-beltzek irabaziko balute, bost puntura jarriko lirakeke. Zaila izango da bi taldeen arteko gol aldeari buelta ematea, Michelinen 1-4 galdu zuelako Ostadarrek.

Erregionalen porrotak

Ostadarren hiru talde erregionalek galdu egin dute asteburu honetan. Ohorezko Mailan lehiatzen ari den taldeak 1-0 galdu zuen Arrasaten, Leintz Arizmendiren aurka. Iñigo Sanchez eta Alex Altunak zuzentzen dituzten jokalariek ez zuten maila ona eman. Erregional Preferenteko taldea ere kaskar aritu zen Errenterian. Bigarren sailkatuarekin neurtu zituen indarrak, Touringekin, eta 2-0 galdu zuen. Etxeko taldeak zati bakoitzeko aurreneko minutuetan sartu zituen golak. Azkenik, 1. mailako Kopa jokatu ari den taldeak 2-5 galdu zuen Irauliren aurka. Emaizta txar horiek ahazten saiatuko dira hiruak asteburuan.



Lasarte-Oria Traileko kideek ere parte hartu zuten Udaberri lasterketan. JAVIER ZATARAIN

Marka onak eta ordezkaritza zabala Udaberriko lasterketan

Errepideko hamar kilometroko proba azkarran lehiatu dute asteburuan 30 bat herritarrek Donostian.

Txintxarri

Eguraldi kaskarra, ur tanta batzuk tarteka, eta fresko samar. Korri egiteko eguraldi paregabea aprobetxatu zuten igandean Lasarte-Oriako korrikalari askok. EHUKo Udaberri lasterketa egutegiko nabarmenetakoa da, eta norberak bere helburuarekin, lasterkariz bete ziren Donostiako kaleak. Gainera, 10.000 metroko Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten aldi berean. Raul Gomez Margallok lehiatu zuen; gaixo ibili da azken astean, eta ez du bere onena ematea lortu. Edonola ere, 6. postuan iritsi da.

Lasterketa azkarra da Donostiarrak taldeak

antolatutakoa, eta herritar batzuek markak hobetzeko erabili zuten. Gomez kenduta, azkarrenetarikoak David Cordero, Gorka Gil eta Jon Altuna izan ziren, hirurak 37 minutuko marka jaitsita. Yoana Martin, Iratxe Beitia eta Elisabet Cepeda izan ziren lehen emakumeak.

Presa, Laredon

Jon Presak larunbatean Laredoko 10 kilometroko lasterketa jokatu zuen. Nahiz eta marka pertsonala ontzea lortu zuen (32:57), ofiziala kontutan hartzen denez (33:04), Espainiako txapelketarako sailkatzeko lau segundora geratu zen.



OSTADAR IPAR MARTXA

Otsagabian, raketekin elurretan

Ostadar Ipar Martxako kideak Otsagabian izan ziren asteburuan, raketekin elur gainean ibiltzen. Bertako ipar martxalarietara ingurua ezagutzeko aukera izan zuten, batzuek, gainera, teknifikazio saio bat ere egin zuten. Maiatzaren 4an alderantziz egingo dute, haiek etorriko dira Lasarte-Oria ezagutzera.



Begiristain (ezkerrean, kartak banatzen) eta Rebe (eskuinean, gorriz) ederki aritu ziren Lizarran. EUSKAL HERRIKO MUS FEDERAZIOA

Karibera bidaiatzetik bi partidara geratu dira

Mikel Begiristain eta Unai Rebe zazpigarren geratu dira Euskal Herriko Mus Txapelketan; herritar batzuek inoiz lortutako emaitza onena izan da. Beñat Esnaola eta Xabier Arteaga ere ongi aritu dira, eta final hamaseirenetara iritsi. 128 bikote aritu dira Lizarran

Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasarte-Orian muslari trebeak daude. Euskal Herriko Mus Txapelketan frogatu dute: bi bikote joan ziren Lizarrara larunbatean, eta azken fasean sartu ziren biak. Mikel Begiristain eta Unai Rebe ederki aritu ziren, eta final laurdenetara iritsi ziren. Herritar batzuek inoiz lortutako emaitza onena izan da. Karibera bidaiatzetik bi partidara geratu dira. Beñat Esnaola eta Xabier Arteaga ere 32 onenen artean sartu ziren; final hamaseirenetan kanporatu zituzten. Txapelketaren XI. edizioa izan da aurtengoa.

Txapelak ez ziren Nafarroatik atera: Mikel Goñi eta Dani Zunzarren iruindarrek jantzi zituzten. 3.000 euro irabazi dituzte, eta Karibera joateko lau lagunentzako bidaia bat. Joseba Telleria eta Joseba Gabilondo legazpiarrek izan ziren txapeldunordeak, iaz bezala.

Lasarte-Oriako Xirimiri elkarteak jokatutako kanporaketan ekin zioten bideari herriko bi bikoteek. Begiristainek

eta Rebe irabazi zuten, eta jokoan bi txartel zeudenez, Arteaga eta Esnaola ere sailkatu ziren Gipuzkoako faserako. Zaldibian jokatu zuten kanporaketa hori, otsailaren 23an. Bi fase pasatu zituzten han eta Euskal Herriko finalera sailkatu. Arauak, hauek: lau erregetara, eta 30 tantoko hiru ustel nork lehenago egingo.

128 bikote Lizarran

Lizarran elkartu ziren Euskal Herriko muslari trebeenak, larunbat goizean. La Bota elkarteak aritu ziren enbidoka eta hordagoka izena eman zuten 256 pertsonak. Launa bikoteko 32 multzo egin zituzten antolatzaileek. Talde bakoitzeko azken faserako. Tartean ziren Begiristain-Rebe eta Esnaola-Arteaga herritarrak.

Final hamaseirenak elkarren ondoan jokatu zituzten bi bikoteek. Ez ziren biak sailkatu, ordea; aurrera egin zuten Rebe eta Begiristainek, eta fase

horretan txapelketari agur esan Esnaolak eta Arteagak. Txapelketaren azken txanpan ez dago partida errazik; final hamaseirenetan eta zortzirenetan 3-2 irabazita egin zuten aurrera herritarrek, eta txapelketako zortzi onenen artean sartu. Jose Luis Bastida eta Natxo Ruiz arabarren aurka jokatu zuten finalerdietara pasea; 3-1 galdu zuten. Ardo eta sargardo botila sorta eta 250 euro irabazi zituzten.

Txapel gehienak, Gipuzkoara

2009. urtean jokatu zen Euskal Herriko Mus Txapelketa aurrenekoz. Pedro Olarte eta Alberto Fernandez gasteiztarrek jantzi zituzten txapelak. Arabak orain arte lortu duen bakarra izan da. Orduz geroztik, Gipuzkoara joan dira gehienak: hamaikatik lau, hain justu. Azken bost edizioetatik hiru (2015, 2017 eta 2018) probintzia horretako muslariak irabazi dituzte. Nafarroak bi txapel ditu; Behe Nafarroak, beste bi; eta Bizkaiak eta Lapurdik, bana.



LOKE

Dominak LOKEko judokentzat

LOKEko judoek bi domina lortu dituzte asteburuan Huescan jokatutako Kadete Kopan. Borja Dominguezek zilarrezkoa eskuratu du, Almi Camposek, berriz, brontzezkoa. Azken asteetako emaitza onei jarraipena eman diete, Gipuzkoako infantil eta kadeteetan Dominguezek urrea lortu baitzuen, Martin Sebastianek zilarra, eta Camposek nahiz Oier Guisadok brontzea.

Alex Saleta, Kaliningradon

Hainbat kontzentrazioetan parte hartu ondoren, Alex Saleta errugbi jokalaria lasarteoriatarra deitu egin dute 18 urtez azpiko Europako Errugbi txapelketan parte hartzera Espainiako selekzioarekin. Apirilaren 10etik 21era bitartean jokatuko dute Kaliningradon (Errusia). Saletak Beltzak eskolan hasi zen errugbian, Michelingo belar gainean.



TXINTXARRI



BURUNTZAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

Carbayeda, garaile Azpeitian

Buruntzazpiko txirrindulariek podiumera igo ziren beste behin pasa den igandean. XXXIX. Azpeitia Proban Beñat Carbayedak lortu zuen lehen postua eta Haimar Etxeberria izan zen hirugarrena. Guztira, 44 txirrindularik amaitu zuten 54 kilometroko proba. Ihes egindako lau txirrindulari elkarrekin iritsi ziren amaierara, eta helmugako esprintean irabazi zuen Carbayedak.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Artai
Zorionak zure 11. urtebetetzean, atte eta amaren partetik. Milioi bat muxu zuretzako!!

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:


ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:


OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 22




Larunbata, 23




Igandea, 24




Astelehena, 25



Asteartea, 26



Asteazkena, 27



Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

Oihan Moriana Rodriguez. Martxoaren 15an.
Nikole Segurola Ubeda. Martxoaren 12an.

HILDAKOAK

Juan García Pérez. Martxoaren 18an.
Julio Legaz Heras. Martxoaren 16an.
Matilde Arruti Lizaso. Martxoaren 15an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 22 ORUE
Larunbata, 23 ACHA-ORBEA
Igandea, 24 ACHA-ORBEA
Astelehena, 25 DE MIGUEL
Asteartea, 26 LASA
Asteazkena, 27 GIL
Osteguna, 28 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

SUDOKUA

7	4			8		2		
2			7	6			1	
6			2		4	7		3
4	5	6	8				2	
1	8			5			6	9
			6		2	5		
9	2		1		8		7	
			7		2		9	
			3		7			2

OHARRAK

Posta bidezko botoa

Apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorretan postaz emateko asmoa duten herritarrek, apirilaren 18ra arte dute eskaera egiteko.

Alderdi politikoek haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Pisua alokatzen da Usurbil erdigunean. Igogailua du. Bikote batentzat aproposa. Kanpoaldera, handia, altzairuekin. 650 636 588.

LANA

ESKAINITZA
Usurbilgo ileapaindegi baterako langile bila dabilta. Esperientziarekin. 35 orduko lanaldia. 619 06 06 85

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Lasarte-Oria eta Korrika Interneten indartzeko

21. Korrika Kulturalak lizentzia askeko Wikimedia Commons multimedia biltegiari buruzko ikastaroa antolatu du. Euskal Wikilarien Kultura Elkarteko kide Iñaki Lopez de Luzuriagak tresnaren erabilera azalduko du, asteazken arratsaldean, kultur etxean

Txintxarri

Wikimedia Commons munduko hirugarren multimedia biltegi handiena da, eta lizentzia askeko lehena. Ezagunena den Wikipedia entziklopedia askean sorburu duen Wikimedia mugimenduko beste plataformetako bat da. Bertan, munduko era guztietako elementuak gordetzen dira kategoriatan sailkatuta; eta Wikipedian edo handik kanpo erabil eta zabal daitezke.

Kategoria ugari eta askotarikoak daude, baina guztiek ez dute arreta bera jaso. Hau da, eduki kopurua ez da parekoa denen kasuan. Lasarte-Oria eta Korrika, adibidez, gutxi landutakoak dira.



Korrikari buruzko argazki eta bideoak partekatzen ikasiko dute tailerrean. TXINTXARRI

Ondorioz, horien berri izan eta zabaltzea zaila egiten da.

Aste gutxitan hemen izango den Korrika baliatuta, egoera hori aldatu nahi dute. Xede horrekin, Korrika Kulturalaren barruan, *Korrika irudikatu 2019: Commons tailerra* antolatu dute. Asteazkenean aurrera eramango dute Manuel Lekuona kultur etxean, 18:30etik 20:00etara.

Wikimedia Commons eta Euskal Wikilarien Kultura Elkartea (EWKE) aurkeztuko dituzten lehenik. Ondoren, lizentzien nondik norakoen berri emango dute, material ekarpena errazteko; baita kategoriak nola sortu eta esleitu ere. Azalpen teorikoak barneratzeko bide onena norberak bere kabuz egitea denez, fitxategian Commonserratzeko ariketa burutuko dute partaideek. Horretarako, argazki kamerarekin edo sakelakoarekin egindako argazki bat biltegi digitalera igo beharko dute.

Identitateak sendotu

Egitasmoaren helburua bikoitza da. Batetik, euskararen aldeko ekimenaren inguruan herrian egiten diren jardueren argazkiak

atera eta bideoak egitea bultzatzea, ondoren Commonsera igotzeko. Bestetik, herrian edo kanpoan argitaratu eta lizentzia askeko multimedia materiala duten webguneetatik hara bideratzea.

Irakasle lanetan EWKEko kide Iñaki Lopez de Luzuriaga ariko da. Herritarren partaidetza sustatu eta kode sinplifikatuak baliatzen ikasteaz gain, uste du tailerrak bi sarrerei onurak ekarriko dizkiela "Zalantzarik gabe Commonsera ekarpenak egiteak lagundu egiten du bi kategorion, Korrika eta Lasarte-Oria, identitatea eta haien kohesioa sendotzen".

Era berean, "herritarren parte hartzea sustatzeko, mundu digitaleko euskararen presentzia handitzeko eta kode digital sinplifikatuak edo Commons erabiltzen ikasteko baliagarria izango da tailerra.

Interesa dutenek izena eman dezakete Munterri AEK Euskaltegian, lasarte@aek.eus helbidera idatziz edo 607 625 233/607 61 48 31 telefonoetara deituz. Partaideek ordenagailu eramangarria edo tableta eraman beharko dute.



Moda Desfilea

DOAKO SARRERA GONBITAREKIN

Anima zaitetz eta etorri!

Manuel Lekuona Kultur Etxea

Larunbata
Martxoak 23 18:00tan

Antolatzaileak:

- ANA Gizonezko ileapaindegia
- ALBA Moda
- LEDER oinetakoak
- OLMI mertzeria
- MABEL Moda
- ITURBE oinetakoak
- IMAGINE Jantzi Denda
- MARIAN OLAIZOLA ileapaindegia
- MARBELL ileapaindegia
- ORMAZABAL Loradenda

Kolaboratzaileak:

- IRIGOYEN Optika
- BIZKER inprenta
- AMAIA GONZÁLEZ CABALLERO eskola

Lasarte-Oria 2019

